

Noaia !!



Zubietako kaltetuak Foru Aldundiarekin bildu dira



Abuztuaren 2tik 15era itxita egongo da herritze lanengatik

Horrela geratuko da kiroldegia

SANATORIO  de USURBIL
USURBILgo SENDATEGIA



San Esteban, 48. Tel: 943 36 11 24 Fax: 943 36 28 98
Medikua: sanasur@facilnet.es / Administrazioa: sanadire@facilnet.es



Ondo igaro festak!



Zumeta
Jatetxea

Astelehenetik igandera *Aukera ederra*
• **Menu Berezia 20€**

- Degustazioko menua
- Karta

Astelehenetik ostiralera

- Eguneko menua (eguerdian)
- **Plater konbinatuak** (gauetan)

BERRIA!

Igande gaua itxita



Ondo pasa Sanestebanak!

943 362 713 Txokoalde



ILLUNBE-GOIKOA

NEKAZALTURISMOA

Logelak
komuna eta TBrekin
Sukaldea
Jangela



www.nekatur.net

666 884 901 anaginaga@hotmail.com USURBIL

Albistea iruditan!

Zubietar kaltetu taldea Foru Aldundiko ordezkarietarekin bildu da

Erraustegiak eragingo dituen kalteak ehizpide izan zituzten hitzorduan; eta atez ateko bilketaren zein moratoriaren aldeko jarrera erakutsi zieten zubietarrek Aldundikoei. Aldunditik elkarlanerako jarrera eta aurrerantzean informazioa partekatzeko asmoa erakutsi zuten, beti ere ordea zubietarren esanetan, "beraien proiektua jarraituko bagenu". Aldundiak "karta guztiak markatuta dituztela", diote zubietarrek. Bilera ostean ordea argi diote: "Kontziente izan behar gara gure indarra zein den. Argi dago atez atekoaren aldeko mugimenduak min handia egin diela beraiei eta hori ez zuten espero", adierazi dute Zubietatik.



ZUBIETAKO KALTETUAK DIPUTAZIOKO ORDEZKARIEKIN BILDU ZIREN AURREKO ASTEAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Demborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilibidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ALDAKETAK SAN MARKON _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

ZUBIETAKO UDAKO TXOKOAK _____ **8. OR.**

SANTIOAK ETA SANESTEBANAK _____ **9. OR.**

ABUZTUAN, ATXEGALDEN JAI! _____ **17. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO

BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

iz Agirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Otar-Goxo

Elkargutak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil



NEREA ZINKUNEGI

Betaurreko beltzak lagun

Betaurreko beltzak jantzi ditu portaletik ateratze-rako, nahiko laino dagoen arren. Azken errepa-soa eman dio bere buruari kalera atera aurretik, eremu pribatua eta publikoa bereizten dituen atariko ispilu horren aurrean, eta egun berriari ekiteko asmoz limoizko irribarrea margotu du bere aurpegian.

Idatzi honen hasierak kontakizun ezberdinetarako aukera ematen dit eta nik, zerbait esateko intentzioz, bi aukeratu ditut;

Bat:

Santixelak bukatzen dira gaurkoan eta portaletik atera eta zitarako gelditutako taberna bidean doala flash back moduan etorri zaizkio aurtengo festetan bisitutakoak: Erra! lau egun, nahikoa. Zurrunbilan etorri zaizkio irudiak; txaranga, pilota finalak, ligeak, marrazkiak, kontzertuak, buruhandiak, dantzariak, txosnak, zikiro jana, mundiala! Gazteak inguruan, bazkaltzen, lanean, kantari, kontari...pozez barrezka doa

eskuak poltsikotan dituela bere munduan isolaturik, betaurreko beltzak lagun, biharamuna disimulatzen duelakoan.

Bi:

Portaletik atera eta bart gaueko gertakizunek dar-dar batean ibilarazten dutela konturatu da, betaurreko beltzen atzetik ezker eskuin begiratzen du, inork, komunikabideek esandakoaren arabera, identifikatuko ote duen beldur. Itxuraz helduago ematen duen arren, hamabost urte besterik ez ditu eta bart gauean amaren bikoteak emandako kolpeek betirako arrastoa utziko diotela sumatzen du. Lagun baten etxera doa... Eskuak poltsikotan dituela bere munduan isolaturik, betaurreko beltzak lagun, biharamuna disimulatzen duelakoan, eta betaurreko hertzetatik bi malko lodi agertu zaizkio ezinaren ezinez sortuak.

Ta gu, gu kalean zehar arropa ilunak, aurpegi zuriak... "komo si nada".

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

(1, 2, 3...) "Pa Panamerikano"

Bai noski! Erritmo honekin lagun koadrila bat osatu ginen eta taldea "Usurbil Mirotz" izenarekin, maiatzak 24-28 bitartean, "Granollers Cup 2010" txapelketara abiatu ginen.

Aurten ere, esperientzia zoragarria! Hezkuntza, hizkuntza, kultura ezberdinak, norberaren ardurak zein taldea-

rekiko harreman sozialak... Bizitza honetarako osagaia ikaragarria!

Hemendik berriz ere, dena ondo atera zedin, gazteak izan zuten jarrerarengatik zoriondu nahiko nituzke. Baita ere hauen gurasoak egin zuten ahalegin ekonomikoagatik, gure artean dena ordaindu ahal izateko.

Eta azkenik, Zumaiako Pulpo KE, hara joateko ginela jakin izan zuten bezain pronto, jolastu ahal izateko, jokalaria guztientzat arropa gehi bi baloi eskaini zizkigutelako.

Jokalari batek esan zuen bezala, ekipo ez, *ekipazo!*

Jon Gallego

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: irailak 10. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 6.

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurrea 2, 943 11 82 53

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Olandegia - Gozategia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Atez ateko bilketa gera ezina da eta hedatzen jarraituko dute, San Marko Mankomunitatearen arabera

Hondakinen gaiari lotuta, azken egunotan hedabideetan kaleratu dituzten zenbait informazioaren haritik, prentsaurrekoa eskaini zuten uztailaren 16an San Marko Mankomunitateko ordezkariak: Imanol Azpirotzek, Marian Beitialarrangoitiak eta Duñike Arrizabalagak.

Jakinarazi zuten, azken egunotan Mankomunitateko hainbat udal ordezkari aldatzeko Lasarte-Orian eta Urnietan hartu dituzten erabakiek eta ondorioz, San Markon gerta daitekeen edozein aldaketak ez du oztopatuko Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen hondakinak atez ate biltzen jarraitzea. Atez atekoa babesteko udal eskumenak badirela oroitarazi zuten.

Errauste planta, gosez hil

Are gehiago, atez atekoa geraezina dela eta etorkizunean Gipuzkoa osora zabalduko den sistema izango dela iragarri zuten eta ondorioz, Hernaniko alkateak zioenez, "errauste planta gosez hilko dugu". Debagoienako Mankomunitatea horren lekuko, aho batez onartu berri baitu atez ateko bilketa martxan jartzea. Hilabete gutxi barru Antzuolan abiatuko dute.

Hamaikabat, PP, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek gai honetan erakutsitako jarrera gaitzetsi zuten Mankomunitateko



IRUDIAN, HERNANI, USURBIL ETA DONOSTIAKO UDAL ORDEZKARIAK.

ordezkariak. Ez dutela egiten eta ez dutela egiten utzi nahi zioten. Baina Hernaniko alkatearen esanetan, "errauste planta beharko zela uste bazuten, oker zebiltzan".

Garai batetik hona izan duten jarrera aldaketa zergatik gertatu zen galdetzen zuten Mankomunitateko ordezkariak. Honela baitio 2008ko maiatzean Gipuzkoako Batzar Nagusiek hartutako erabaki batek: "Gipuzkoako Batzar Nagusiek adierazten dute, mankomunitateek beren kudeaketa antolatzeak daukaten eskumena eta ahalmena errespetatuta, haiek esperientzia pilotuak egitearen alde daudela, alegia, atez ate biltzeko sistema ezarri eta pixkanaka hedatu ote daitekeen ikusteko saiakuntzak egitearen alde".

Harro, egindako lanaz

San Marko Mankomunitatera ailegatu zirenetik burutu duten lana goraiatu zuten Azpirotzek. "Harro gaude egindako lanaz", adierazi zuten zubietarrak. Hiru urteotan, hondakinen arazoa bideratu dutela adierazi zuten, dagoen konponbide bakarra abiatuta; atez ateko bilketa. Emaizta ikusgarriak lortu dira euren esanetan, azpiegitura erraldoirik gabe, ohitura aldaketa simple batekin. Atez atekorekin sortu duten egitura Aldunditik bultzatzen den ereduaren paraleloa ez, alternatiboa bezain bideragarria dela ere gogorarazi zuten.

Erraustegiko lanen esleipena

Aurreko legegintzaldira arte hondakinaren gaien burututako kudeaketa desastroso gisa definitu zuten Azpirotzek. "Euren kezka bakarra hondakinak zer zultara, nora botatzea zen", adierazi du. San Markoko egungo zuzendaritza taldeak Aldundiak bultzatu nahi duen eredu kolokan jarri dutela gogorarazi du. Eurek itxi duten San Markoko zaborteziaren eta Aldunditik bultzatu nahi duten erraustegiaren atzean dagoena negozioa dela azpimarratu dute. "Zaborteziaren atzean enpresek dirua kobratzen zuten. Zenbat eta zabor tona gehiago garraitu bertara,

horren baitan kobratzen zuten", adierazi zuten Azpirotzek.

Erraustegiko lanak esleitzeko oinarriak onartu zituzten joan den ostiralean. Lehiaketara aurkeztutako enpresak ahotan hartu zituen Azpirotzek. "Dena lotuta utzi nahi dute legegintzaldi amaieran. Urteetan ikusi dugu zer enpresa egon diren. Jokatu genuke, enpresa berak jarraituko dutela errauste plantako lanen lehiaketan", adierazi zuten. Aldundia enpresa hauen agindupean dagoela azpimarratu zuten prentsaurrekoan.

Atez ateko
zalantzak argitzen

Jostailu eta balde
gisako plastiko
gogorrak nora
bota behar dira?

*Errefusara bota behar
dira, eta ez ontzi
arinetara.*

Bidali zure galdera
helbide honetara:
atezate@usurbil.net
Galde-erantzun guztiak
webgunean:
www.usurbil.net/atezate

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

50. urteurrena



1960. urtea zen. Irailean sartuak ginen dagoeneko eta data hauetan arraun munduan egun handiak izan ohi dira. Iraileko lehen bi igandeetan, Kontxako estropadak.

Irailaren 4a zen eta bost traineru genituen Kontxako Badian arraunean hasteko prest. Aginaga, San Juan, Jaizkibel, San Pedro eta C.D. Pasajes. Urte haietan, estropada gaur egungo moduan jokatzen zen, hau da, ziboga bakar batera. Hasi zen estropada eta aginagarrek erraz irabazi zuten lehenengo eguneko estropada, san juandarrei 37 segundu atereaz eta bandera etxerako bidean jarriaz.

Bigarren igandean, berriz, irailaren 11n, aginagarrek nahikoa zuten estropada sanjuandarren aurretik bukatzearekin. Itsasoa bare bare egokitu zen eta beste 7 segundu atera zizkion talde urdinak arrosari, guztira 44 segundu.

Gauza jakina da, Aginagak arraun munduan eginiko lana ez zela makala izan. 1957 eta 1960. urteetan Kontxako Banderak etxeratu baitzituzten. 2007. urtean



omenaldia egin genien urte haietan arraunean ibili ziren gizonei, jende asko elkartu ginen eta festa giroa paregabea izan zen.

Aurten, modu apalago batean, baina 1960. urtean irabazitako bandera hura oroituko dugu irailaren 11n. Goizean meza nagusia izango da eta ondoren herri bazkaria egingo dugu frontoian, trikitalariez alaitua. Hemendik, herritar guztiak animatu nahi zaituztet jai honetara.

KALEZAR

INMA BALDA

Gure bazterrak



Opor usaina dugu giroan. Egunerokotasunetik ihes egiteko aukera bikaina. Askok eta askok urrutira joko dugu zer-bait desberdina bilatzeko, emozio berrien bila, agian. Eta bakarren batek baita aurkitu ere. Eta beste batzuk, berriz, irakurtzeko hartuko ditugu oporrak. Irakurritz urrutiko parajeak ezagutzeko eta emozio handiak sentitzeko.

Baina, gure auzoko txokoak, egunero begi bistan ditugunak, nobela batean topatuko bagenitu? Ba, halaxe izango da Toti Martínez de Lezeak idatzirik "La Brecha" esku artean hartzen badugu. Liburu horretan protagonistak Donostiatik ihes egiten du Zubietan ezkutatzeko. Igaratik barrena, gure base-riak eta bideak zeharkatuz, Kaleztatik egingo du ihesaldia.

Beste garai bateko istorioa kontatzen zaigu, baina hain gureak egiten zaizkigu deskribatzen diren parajeak, protagonistari begira gauden lekuko bilakatzen gaituela. Sekulako zirrara eta emozioa bizitzen da pasarte hori irakurritz! Pentsatu hutsean gure aiton-amonon aiton-amonon egoera hori bera benetan ezagutu zutela!

Bihotzez gomendatzen dizuet liburu horren irakurketa. Opor zorionsuak!

SANTUENEA

ALEX TELLO

Agurra

Bakarrik sentitzen naiz hainbeste jenderen artean. Beroak ez du babes ematen eta mugitzen digun inertiak pertsona gastatzen du. Nola ordaindu ahal izango dut osatzeko? Mesfidatia ez zarenez, zuhurraz fida zaitez. Zenbat ordaindu beharko dut denboran zehar doan emandakoa berreskuratzeko? (Ezinezko galderari ezinezkoa erantzuna. Absurdua). Loturek heltzen dute eta kolokan egoteak ezegonkortasunera eramaten du. Beti izango da hurbil egonkortasuna emango duenik, hartaz ere fida zaitez. Banoa beste inora joan gabe. Ez dut itzuli nahi eta hemen geratuko naiz agerian. Hortaz, atzera ere egin aurrera egin ahal izateko. Aitzitik, bila etorriko direnek aurkituko naute. Halere, inor ez da ezinbesteko eta akaso soberan dagoenik izango da. Egon, bestearen falta ez sumatzeko harenganako menpekotasuna landu. Dena dela, beti izango da gertu gabeziak estali eta oreka lortuko duenik. Fida zaitez eta ez nire hitzaz, egintzaz baizik. Zein subjektiboa izan daitekeen oro. 2004ko azaroan idatzi nuen lehena eta orain, sei urtez 8 idatzi burutu ostean, badoa nire azken kronika. Badoa banoalako. Eskerrik asko NOAUA!ko lantaldeari idatzi guztiak argitaratzeko emandako aukera eta arretagatik. Irakurle goari agur t' erdi.



KALEBERRI

IRATI PORTU

Pirinioetara asteburu pasa



Herriko jaiek utzitako ajea atzean utzi eta arnas berritzeko proposamena egin zuten Andatza Mendi Taldekoek, uztaileko bigarren astebururako. Pirinioetara asteburu pasa antolatu zuten joan den uztailaren 10 eta 11rako. Ondoko argazkian ageri den moduan, koadrila ederra bildu zen Andatzakoen deialdian. Bi egunetan Aspe eta Collarada gailurrak zapaldu zituzten. Mendi ibilbide ederrak osatu zituen usurbildar taldeak egunez. Larunbat gaua Candanchu inguruko alberge batean pasa zuten.

Ez ziren izan asteburu herritik kanpo pasa zuten bakarrak. Uztaileko lehen bi asteburuetako kontrastea oso nabaria baita; festetako zurrumbilotik, herria hutsik ikusterera igaro ohi gara urtero. Batzuk oporretara doazelako, besteak parranda goseak bultzatuta hurrengo festa gunera edota ajea pasa nahi dutenek plan lasaigoak ere egingo zituzten. Andatza taldekoen moduan, kirol jardueraren bat egitea bururatuko zitzairen.

Edozein kasutan, bazirudien hilaren 9tik 11ra usurbildarren "exodoa" edo gertatu zela. Santixabelak agurtzearekin batera, kale eta tabernak hutsik zeuden. Nahiz



gerora normaltasunera itzuli den berriz herria.

Oporraldi usaina nonahi nabaria den urte garai hone-tako proposamenetako bat izan daiteke mendira joatea. Baina ez bakarria, aukerak ugariak baitira. Modu batean edo bestean, herrian geratu edo atzerrira joan, hondartzara edo mendira, festaz festa ibili, edo bidaiatzeko asmotan bazabiltzate, ondo pasa udako oporraldian!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Udako gau beteko ametsa



Gure etxean gaueko parrandak sesio eta kalapita iturri besterik ez dira. Gurasoek debeku eta murrizte bidea besterik ez dugu eskura, gaueko erreinura sar ez daitezten.

Badakigu mundu horretan asko direla arriskuak, gure kontroletik oso urruti daudenak-Argigarria da musika taldearen izena: Deskontrol-.

Zer du gauak horren xarmgarri? Hori al da gure gazteek helduen mundutik ihes egiteko aurkitu duten zirrikitua?

Edo etorkizuna esna amesteko ordua dute? Gainera gauak herriko festak aurkituko ditu asteburu honetan, Zubietan. Zer gehiago nahi gure gazteek?

Egia da, aitor dezagun -gu ere noizbait urrun batean gazteak izan ginen- udako gauak baduela sorginkeriatik eta magiatik zerbait, amets egiteko pozoï goxoa dela: epeltasunean bilduta, lagunak inguruan, denboraren esturatik urruti, gauaren sabai izarratuari dirdira nimitoz erantzuten diete ipurtargiek.

Eta han urrutian mozkorren kantu erlastuak.

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Atxegaldeko festak bizirik!

Festarik festa gabiltzan garai hauetan, Atxegaldeko Jai Batzordea osatzen dugun auzoko gazteak lanean dihardugu buru-belarri gureak antolatzen. Badira hilabete batzuk biltzen hasi ginela eta Noauako aurreko alean agertu bezala jada egitaraua osatua dugu. Hiru egunez luzatuko dira festak eta urtero bezala abuztuko azken asteburuan izango dira, ostiral arratsaldean hasita igande gauerarte. Txupinazoa eta luntxarekin emango diegu hasiera Atxegaldeko Jaietara eta asteburu osoan zehar adin guztietarako jendearentzat izango da ekitaldi ugari, hala nola haurrentzako jokurik dibertigarrienak, mus txapelketa, herri afaria, aizkolariak.... Ez dira faltako gauak alaitu eta animatuko dizkiguten kontzertuak ere. Atxegalden beti bezala musika talde bikainak izango ditugu taula gainean, ostiral eta larunbateko parranda gauak mundialak izango direla ziur izan! Eta nola ez, igande gauean oso ezaguna egin den eta beraz, gure festetan ezinbestekoa bilakatu den traka ikusgarrienarekin esango diegu agur 2010eko Atxegaldeko Jaietara. Bien bitartean, ahalik eta ondoen pasa udako egun hauek eta abuztuko azkenengo asteburuan Atxegaldera etortzera animatzen zaituztegu. Gora Atxegaldeko Jaiak!!



Santixabelak, parte hartze handikoak

Joan den uztailaren 14an bildu zen azken aldiz, azken hilabeteotan Santixabelak prestatzeaz arduratu den Jai Batzordea. Uztaila hasieran ospatu ziren herriko festak baloratzeko tartea hartu zuten bilkuran parte hartu zuten herritarrek. Balorazio positiboa egin dute, festa giroaren, jai gunearen, ospatu diren ekitaldien edota antolakuntza lanen inguruan. 2011ko jaietarako ere lehen proposamenak mahai gaineratu ditu jada Jai Batzordeak.

Aldaketek Santixabelak hobetzeko balio izan dutela uste dute Jai Batzordekoek. Alde horretatik, adibide moduan aipa daiteke uztailaren 1ean ospatu zen Haurren Eguna. Egun horretarako espresuki sortutako abestiarekin batera zenbait joko sortu zituen antolakuntza lanetan jardun zuen guraso taldeak, kanpo kontrataziorik egin beharrik izan gabe.

Etxeko kirolariak nagusi

Beste hainbeste aipa daiteke herri kirolen inguruan ere. Aurten etxeko kirolarien aldeko apustua egin da. Aizkolarien saioko eta giza-probako protagonistak bertakoak ziren. Sortu berri den Saiatuz herri kiroltako elkarteak izan duen eragina nabarmena izan da jai hauetan ikusi denez.

Parte hartze datuei dagokienean, oro har egunez jende mugimendu gehiago ibili da gauzez baino. Jai Batzordetik aipatzen dutenez, gaueko beherakada orokorra da, hau da, jai gutzietan nabari dena.

Zubietako udako txokoak

Munduari bira ematen ari dira udan Zubietan, Zubietan antolatutako txokoetan. Ur jolasak, ginkana, herri kirolak, futbola... Lekuan lekuko ohiturei lotutako ekintzak burutzen ari dira. 2-11 urte arteko berrogei bat haurrek eman dute izena udako txoko hauetan. Burutu dituzten beste ekintzen artean, kanpora ere irtenak dira. Elizondan izan ondoren, egunotan Bizkaia aldera, Mundakara gau bat pasatzera joango dira. Abuztu amaierara arte izango dira martxan Zubietako Txokoak.



2011 RAKO PROPOSAMENAK ERE AZTERTU ZIREN AZKEN JAI BATZORDEAN.

Jai gunea biltzarekin, ados

Baloratu zuten beste puntuetako bat festa guneara zen. Aurtengo antolatzaileek jai giroa Kaxkoan biltzearen aldeko apustua egin zuten. Emaitzarekin gustura agertu da Jai Batzordea. Santixabelak herri erdigunera ekartzarekin, festek asko irabazi dutela diote.

Maskota agerian berriz?

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra luzatu ziren festak. Aurten bost egunera murriztu dituzte Santixabelak eta aldaketa onerako izan dela diote Jai Batzordetik, festetako ekitaldiak ere bilduago ospatu baitira.

Santixabelak maskota agurtzarekin batera amaitu ziren, aurtengoan erraustu ez den errauskailuarekin. Maskota etorkizunean berrerrabiltzea zen egile Patxi Azpiroz herritarraren asmoa. Bitartean, gordeta izan beharrean gune publiko

batean jartzeaz hitz egiteko aukeraz jardun ziren Jai Batzordeko kideak. Ildo beretik, maskotarekin batera jaietan zintzilik egon diren apaingarriek Dema plaza inguruari itxura ederra eman diotela irizten dio Jai Batzordeak.

2011ko festei begira

2011ko Santixabeletarako proposamenak ere bildu zituen Jai Batzordeak; txertatu beharreko berrikuntzen artean, jaietarako zapi bat sortzea proposatu zen, baita jaien hasiera indartzea, maskota eta txupinazoa biak uztartu edo bateratuta.

Azkenik, Jai Batzordeak bere burua baloratzeko tartea hartu zuen. Nabarmentzen dutenez, aintzakotzat hartzekoa da aurtengoan Jai Batzordeak izan duen parte hartze jendetsu bezain anitza.



!!!

gehigarri berezia
Santio jaiak

10

uztailak 23





**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



Jai zoriontsuak Opa Dizkizue!!!

Heziketa zikloetarako sarbide frogarako ikastaroak



**35 urte
Pertsonak hezitzen**

**Heziketa zikloak
Erdi eta Goi mailakoak**

Administratiboa
Elektrizitate-elektronika
Fabrikazio mekanikoa
Produkzio-zerbitzua eta manten.
Energia eta Ura

Etarte bidea, 9 (Zubieta) 20170 USURBIL
e-mail: eskola@lhusurbil.com

943 36 46 00
www.lhusurbil.com



BARAZAR
OSTATU-JATETXEA

Logelak bere komunekin
Afariak egunero
Bazkariak igande eta jaiegunetan

Santio jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

943 36 33 58 ARBITZA BIDEA - ZUBIETA

taberna-jatetxea
ALAMANDEGI

*Santio jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu*

© 943 36 28 49
ZUBIETA



TORTILA PATATA LEHIAKETA

Larunbat honetan, Zubietan ekoizten duten sagardoa dastatzeko aukera izango da, eguerdi partean hasiko den Sagardo Egunean. Arratsaldean, tortila patata lehiaketa hasiko da. Gogoan izan tortila egiteko tresnak eta osagaiak parthartzailak berak eraman behar dituela.

Bestetik, uztailaren 31n ospatuko den zikiro janerako txartelak aldeztatik erosi behar dira. Salgai daude dagoeneko **Alamandegi** jatetxean. Uztailaren 26an amaituko da txartelak erosteko epea.



HAURREN EGUNA, UZTAILAREN 27AN

Haurren Eguna, aurten, uztailaren 27an ospatuko dute. 10:00etatik aurrera hasiko da festa haientzat, bazkalostean ere jarraituko duten jokoekin. **Gorritiren showak**, txokolatete janak eta buruhandiek osatuko dute Haurren Eguneko egitaraua.

Bestetik, lehen aldiz, eskulan tailerra egingo da aurten, uztailaren 30ean. Arratsaldeko 16:00etik aurrera sormena eta jolasa ardatz hartuta, gaztetxoek itxura ezberdineko artelanak sortzeko aukera izango dute.



Esne Beltza

UZTAILAREN 30EAN, GAUPASA

Joera desberdinetako musika taldeak izango dira Santioetan: erromeria giroa nagusituko da **Egan** eta **Laiotz** taldeekin, trikitixa zaleek hitzordua dute **Ansoregi** eta **Larrañaga** eta **Leire Lasa** eta **Irati Irurzun** bikoteekin. Uztailaren 30ean Gaupasa Eguna ospatuko da. Parranda giroa **Gaueko Itzalak**, **Esne Beltza** eta **Laketz** taldeek jarriko dute. Eta izango da gehiago ere. Jai Batzordeak ohartarazten duenez, "musika egunero egongo da txosnetan, gau eta egun".



BIKOTEKAKO II. BIZIKLETA TXAPELKETA

Kirola eginez, bezperako ajea erraz ahazten omen da. Zubietako jai egun nagusietan, izango da bai izerdia botatzeko aukera. Errebote partida jokatuko da San Inazio egunean. Lokaleko finala jokatuko dute, goizeko hamaiketatik aurrera. Egun berean, aurtengo beste berrikuntza dena; dema Zubietako **Etzetxo** eta Urnietako **Azkonobietako** abereekin. Santio bezperan aldiz, larunbat honetan, bikotekako II. Bizikleta Txapelketa jokatuko da arratsaldeko 17:00etik aurrera.



Uztailak 23, ostirala

19:00 Jaien hasiera (buruhandi, txalaparta, etab...).

21:00 Herri afaria.

Ondoren, Egan taldearekin dantzaldia.

Uztailak 24, larunbata Jubilatuen Eguna

11:00 Meza.

11:30 Zubietako III.

Sagardo Eguna (Iruin, Araeta, Aialde- Berri...).

14:00 Jubilatuen bazkaria.

16:00 Mus txapelketa.

17:00 Zubietako bikotekako II.

Bizikleta lasterketa.

18:30 Patata tortila lehiaketa.

(Bakoitzak bere tresnak eta nahi dituen osagaiak ekarri ditzala).

Ondoren, Itzartu trikitixa taldearekin dantzaldia.

23:00 Kontzertua: Never Surrender, Ze Esatek!

Ondoren, Laiotz.



Uztailak 25, igandea Santio Eguna

09:00 Esnadeia (Donostiako txistulari bandaren eskutik).

10:30 Meza nagusia.

11:30 Hamaiketakoa.

Ondoren, soka-dantza.

18:00 XIII. Trikitixa txapelketa.



Ondoren, Leire Lasa eta Irati Irurzun trikitilariak afal

ordurarte. Gero, buruhandiak.

22:30 Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Uxue Alberdi, Ibai Esoain, Andoni Egaña. Gai-jartzailea: Egoitz Aizpuru.

Ondoren, Leire Lasa eta Irati Irurzun trikitilarien jarraipena nazkatu arte.

Uztailak 26, astelehena Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen itzulera eta azken dantza.

Uztailak 27, asteartea Umeen Eguna

10:00 Jolasen hasiera.

14:00 Bazkaria.

16:00 Jolasen jarraipena.

18:00 Gorritiren showa.

19.30 Txokolatada.

Ondoren, buruhandiak.

Uztailak 30, ostirala Gaupasa Eguna

16:00 Esku-lanak egiteko tailerra umeentzako.

17:30 Futbito partidua.

00:00 Kontzertua: Gaueko Itzalak, Esne Beltza.

Ondoren, Laketz taldearekin goi zalderarte gozatzeko aukera.

Uztailak 31, larunbata San Inazio Eguna

06:00 Txokolatada.

07:00 Sokamuturra.

09:00 Zikiro prestaketaren hasiera.

09:30 Meza.

11:00 Errebote partidua. (Lokaleko finala).

14:00 Zikiro jana. Txartelak Alamandegin salgai uztailearen 26ra arte. Prezioa: 22 euro helduek, 11 euro haurrek.

19:00 Dema. Etxetxo (Zubieta) eta Azkonobieta (Urnieta).



Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariarekin afal ordurarte erromeria.

22:30 Ansorregi eta Larrañaga trikitilarien jarraipena gauerdira bitarte.

00:00 Jaien amaiera (Suziri, suzko-zezen, etab-ekin...).

00:30 Kontzertua: Hesian taldearekin.

Ondoren, Trikihots trikitilariarekin erromerian jarraitzeko aukera.

Oharrak:

Jaietan gerta litezkeen ezbeharretan, Zubietako Jai Batzordeak ez du erantzunkizunik.

Musika egunero egongo da txosnetan, gau eta egun.

N!!!

gehigarri berezia
Sanestebanak 10
abuztuak 3





TXUPINAZOA, SAN ESTEBAN EGUNEZ

Aurten jai egun nagusiarekin batera, San Esteban egunez hasi eta honenbestez, abuztuko bigarren asteburura arte luzatuko dira Urdaigako festak. Hasteko inoizko txupinazo goiztiarrena, 9:00etan. Meza eta zahagi banaketa ondoren, eguerdian, jubilatuen bazkaria Saltxipi jatetxean egingo da eta jai giroa gero auzoko plazan. Laja eta Landakandaren eskutik, erromeri giroan agurtuko dute San Esteban eguna.



DESAFIOA ETA PLATER TIRAKETA

Santixabeletan bizi izan zen desafio giroak ez du etenik uda honetan. Abuztuaren 7an desafioa San Estebanen: trontzan, aizkoran eta ergometroan. Lehia, beraz, ziurtatua izango da usurbildarren eta zubietarren artean. Desafiorako prestatzen ari direnak Usurbil eta Zubietako talde bana baitira.

Abuztuaren 7an ere, plater tiraketa txapelketa jokatuko da San Estebanen.



OILASKO BILTZERA, ABUZTUAREN 4AN

Hitzordua goizeko seietan finkatu dute antolatzaileek. Goizean zehar, hara eta hona ibiliko dira, etxez etxe, trikita-xa doinuek alaituta dantzan. Ia zenbat oilasko biltzen dituzten. Eguerdian, 14:00ak aldera bazkaritarako bilduko dira Santueneako Aialde-Berri sagardotegian. Oilasko biltzera joateko ez ahaztu, lepokoa, alkandora zuria eta noski, ondo pasatzeko gogoa.



HAURRAK NAGUSI, JAIEN AMAIERAN

Xanixtebanetako Haurren Eguna abuztuaren 7an ospatuko da, larunbatez. Marrazki lehiaketak abiatuko du hurrek aspertzeko tarterik izango ez duten eguna. Goizeko hamaitetan hasiko da txapelketa eta jarraian, jolasen txanda dator. Amaieran adi, gaztetxo lasterkariok. Buruhandiak irtengo dira eta, Jai Batzordeko egoitza. Eguna amaitzeko herri afaria, bertsolariak eta Joxpa taldea.



Abuztuak 3, asteartea San Esteban Eguna

09:00 Txupinazoa!!

11:00 Meza nagusia.

Ondoren Zahagi Banaketa (Espumosos Txapeldunen eskutik) eta Usurbilgo Dantza Taldearen emanaldia.

14:00 Jubilatuen bazkaria Saltxipi jatetxean (Berriola Fagor eta Ingemarren eskutik).

17:30 Helduen arteko jokoak! Eta ondoren hirugihar banaketa Laja eta Landakanda trikitalariek.

Abuztuak 4, asteazkena Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria Aialde-Berrin.

Abuztuak 6, ostirala

23:00 Erromeria Laiotz taldearekin.

Abuztuak 7, larunbata Umeen Eguna

Egun osoan zehar plater tiraketa.

11:00 Marrazki lehiaketa Ondoren, haurren jolasak eta buruhandiak.

16:00 Mus txapelketa.

18:00 Desafiyua Usurbil-Zubieta; trontzan, aizkoran eta ergometroan.

Ondoren, txokolatada eta

buruhandiak.

21:00 Herri afaria (norberak ekarria, kafea, postrea eta kopa jai batzordearen eskutik).

Ondoren bertsolariak; Jon Maia, Uxue Alberdi eta Jexuxmari Irazu. Gai jartzailea; Toloxa.

Gauean, Joxpa taldearekin erromeria.

Abuztuak 8, igandea

10:30 Meza

Ondoren, hamaiketako eta toka txapelketarekin festei amaiera emango diegu!

Oharra: Jai Batzordeak ez du jaiegun hauetan gerta daitezken kalteen erantzukizunik hartzen.






SALTXIPI



ONDO PASA SANE STEBANAKI



Txokoalde z/g · USURBIL · 943 361 127 · 943 371 094

Abuztuaren amaieran, Atxegalden jai!

Ikasturteko azken NOAUA! da hau. Hurrengo, irailaren 10ean plazaratuko dugu. Horregatik, abuztu amaieran Atxegalden egingo diren jaien egitaraua ale honetan bertan biltzea egoki ikusi dugu. Urruti dauden arren, gogoan har ezazuen.

Jaiak hasi aurreko orduetan urtero Jai Batzordeko kideak bazkaritarako biltzen dira, indarrak hartzeko eta hurrengo 72 orduetara behar bezala aurre egin ahal izateko. Abuztuaren 27an ere hala egingo dute, ziur. Bazkalostean trikipoteoan irtengo dira antolatzaileak eta noski, haiekin batera irten nahi duten lagun guztiek. Kaxko aldera hurbilduko dira, baina helmuga argia izango dute: Atxegalde, nola ez. Auzoko plazara ailegatuta, txupinazo jaurtiketarekin lehertuko da jai giroa. Indartsu hasi eta gau osoan modu berean jarraitzeko **Hotzikara, Ze Esatek!** eta **Ingo al deu?** musika taldeen kontzertuak.

Kantu afaria

Josune Aranbururekin

Ohiturari eutsiz, afaria izango da txosna ondoan. Aurreko urteetan festetan bigarren egunerako afaria antolatu izan dute Jai Batzordekoek. Oraingoan ordea formula aldatuko dute, kantu afaria prestatzen ari baitira **Josune Aranburu** usurbildarrarekin batera.

ABUZTUAK 28 LARUNBATA

“Kantu afariaren ondoren, Dj Larra izango da gaueko animatzailea”

Abuztuaren 28ko gaua borobiltzeko, beste herritar baten emanaldia; **Dj Larra** izango da Atxegaldeko festetan. Aurten ere bitan bisitatuko du auzoa Santueneko musika jartzaileak. Igande arratsaldean ere **Dj Larra** izango da Atxegalden.

Haurrak nagusi

Auzoko festak ospatu ziren lehen urtetik, egitarauan pisu nabarmena izan dute haurrei zuzendutako ekitaldiek.



BURUHANDIAK, IAZ ATXEGALDEN ANTOLATU ZITUZTEN JOLASETAN.

Eta hala izaten jarraitzen du. Jai Batzordeak abuztuko azken larunbata etxeko txikienentzat gorde dute. Entretenitu eta primeran pasatzeko egun osoko eskaintza izango dute auzoko zein Atxegaldera ekitaldietan parte hartzera joango diren gainerako hurrek ere.

Goizetik arratsaldera, ez dute ez aspertzeko betarik izango, eta ziur, esku hutsik ere ez direla etxeratuko. Jokoak eta buruhandiak goiz eta arratsaldez, baita askaritarako txokolatada ere. Haurrak jaietako bigarren eguneko jaun eta jabe izango dira.

Amaiera burrunbatsua

Bezperako ajea gainetik kendu ezin arren, goizetik izango da zer ikusia Atxegalden. Dantzarien saioarekin hasiko da abuztuaren 29ko ekitaldi eskaintza. Ondoren eta arratsaldera arte, alor desberdinetako txapelketak nagusituko dira jai giroaz. Lehenik, herriko aizkolarien lehia ikusteko aukera egongo da. Bazkalostean toka eta patata tortilla txapelketen txanda izango da.

Jaiak agurtzerakoan, Udarregi ikastola aurreko patioa ekitaldi argitsu bezain burrunbatsua eskenatokia izango da. Suziri eta petardoaren kolore eta soinua bat egingo dute auzoan. Zezen suzkoa ere plazan hara eta hona ibiliko da, korrika saio bat baino gehiago eraginez.

Atxegaldeko festak

Abuztuak 27, ostirala

17.30 Trikipoteoa.

19.00 Txupinazoa.

Ondoren, traka eta luntxa.

Gaean, kontzertuak: **Hotzikara, Ze-esatek** eta **Ingo al deu?** taldeekin.

Abuztuak 28, larunbata

11.00 Umeen jokoak, buruhandiak.

14.00 Bazkaria (norberak etxetik ekarrita).

16.00 Mus txapelketa

(15.30-16.00 apuntatzeko epea).

17.00 Joku zaharrak gaztetxoentzat.

18.00 Txokolatada eta buruhandiak.

21.00 Kantu afaria.

Gaean, Dj Larra.

Abuztuak 29, igandea

11.00 Herriko dantzariak

Jarraian, aizkolariak. Ondoren, salda eta pintxo banaketa.

16.00 Toka Txapelketa.

18.00 Tortilla Patata lehiaketa.

Ondoren, Dj Larra.

23.00 Azken traka+zezen suzkoa.

50 urte bete ditu Ibai-Ondo elkarteak

Mende erdia bete du Santueneko Ibai-Ondo elkarteak. Uztailaren 31n ospatuko dute urteurrena; tartean, Roman Zulaika, Enrike Uli eta Juan Irazusta bazkide sortzaileak omenduko dituzte. Bazkialurreko hamaiketakoak dastatzen harrapatu ditugu Roman, Enrike eta Juan Ibai-Ondo elkartearen. Omenaldirako bi aste falta zirela, elkar-tearen ibilbidea eta oroitzapen zaharrak berritzeko tartea hartu dute.

Patriko akordioa

Elkartea sortzeko gogoz ziren 1960an. "Garai hartan ez zen erraza, denbora gogorak ziren haiek", gogoratzen du Romanek. Paperak Patriko zuhaizpean sinatu omen zituzten. 45 bazkideekin zabaldu zuten urte hartako uztailaren 31n Ibai-Ondo elkarteak. Apaiz, alkate eta bertsolariak zirela, bazkari eder baten inguruan inauguratu zuten. Hasieran argi gutxirekin, argi indar eskasia zegoen urteak baitziren haiek. Enrikek gogorazten duenez, "kandelak piztuta egoten ginen".

Egun elkarte izaera eduki arren, garai batean ehiza eta arrantza bultzatzeko gunea zen Ibai Ondo. Plater tiroketa ere bultzatu izan dute. Ireki zutenetik handitzen ikusi duten Santueneko jaiak antolatzeke ere lanetan buru-belarri murgildu dira azken urteotan Ibai-Ondokoak. Iraganean baita Urdaigakoak ere. Juanen esanetan, "Udaletik geuk antolatzeke eskatu ziguten, dozena erdi bat urtez edo". Ekimenak antolatzeaz gain, elkarte barruko giroa aipatu behar. Eta noski, mus txapelketak eta egiten zituzten apustuak. "Bakoitzak saiheski kilo bana jokatzen genuen", dio Enrikek. Tertulia giro ederrean egoten ziren.

Bazkideen sortzaileek gogorazten duten moduan, lehen egunero hurbiltzen ziren elkartera. Belaunaldi berriek



ELKARTEKO SORTZAILEAK OMENDUKO DITUZTE UZTAILAREN 31N.

bereziki asteburuetan otorduatarako baliatzen dute Ibai-Ondo. Bada ordea beste desberdintasunik ere. "Oraingo gazteek denek bat egiten dute. Oso ondo ari dira, lan asko egiten dute", adierazi du Enrikek.

"Lokal hura hartu izan bagenu"

Bere garaian bazkideak bi lagun talde handitan banatuta omen zeuden. Elkarteko erabakiak hartzerakoan nabari zen batez ere. Hain zuzen, hiru omenduak badute 50 urteotan kendu ezin duten arantza bat; egungo elkarte ondoran zegoen lokala bere garaian erosi ez izana. Lokal hartako jabearekin hartu eman luze baten ondoren prest agertu zen saltzeko, baina, azkenean elkarteak izan zen atzera joan zena. "Boto batengatik galdu genuen eta prezio onean. Pena hori izan dut. Lokal hura hartu izan bagenu, elkarte polita izango genuen gaur", oroitzen du Enrikek.

Laster, inguruan lanak bideratzekoa da Udala. Etorkizunari begira, horixe da eskatzen dutena, tokia. "Nahi nuke beste 50 urte betetzea, baina ez dadila hau eskastera joan", adierazi du Romanek. Bere esanetan bazkialurretik ez baita, "hau baino leku gozoagorik".

Uztailak 31 larunbata

10:30 Meza San Esteban elizan.

11:30 Zinta mozketa eta berririkitzea Ibai-Ondo elkartearen: aureskua dantzariekin, sortzaileei omenalditxoa eta argazkiak zapiarekin. Omenduak: Roman Zulaika, Enrike Uli eta Juan Irazusta.

- Trikitixa bazkal ordura arte.

- Salda, txorizoa eta haragi egosia denentzat.

- Bertsolariak.

14:00 Bazkaria bazkideentzat.

Ondoren, bertsolariak, trikitilariak.

17:00 Mus eta toka txapelketak bazkideentzat.

18:30 Herri kirolak: Goenatxo aita-semeak harri jasotzen eta zaldi proba.

21:00 Afari herrikoia: nahi duenak alde zuzenetik txartelak salgai ditu elkartearen.

22:30 Dj Larra.

ABUZTUAK 7, LARUNBATA

Egun osoan zehar, 50. plater tiroketa Urdaigagan, Xanixteban jaien barruan.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

Instalazioen mantentze eta handitze lanak bideratzeko, Oiardo Kiroldegia itxita izango da abuztuaren 2tik 15era

Oiardo Kiroldegia handitze-ko lanak hastear dira. Azken orduko atzerapen edo aldaketarik ez bada behintzat, abuztuaren 2an hasiko dira kirol instalazioak handitzeko lanak, baita urteroko mantentze lanak ere. Lanek eragozpenik handienak lehen egunetan eragingo dituztela jakinik, Kirol Patronatuak Oiardo bi astez ixtea erabaki du; abuztuaren 2tik 15era.

Kiroldegiak duen sarrera aldetik bideratu nahi da handitzea. Bestalde, ondoko futbol zelai parean eskubaloiko aretora igotzeko arranpa bat eraikiko dute.

LANEN IRAUPENA

“Atzerapenik ez bada, 2011ko udaberrirako amaituko dira berritze lanak”

Atzerapenik ez bada, 2011ko udaberrirako lanek amaituta behar lukete.

Baina kiroldegiaren itxuraldaketa prozesua laster abiatuko da. Kirol instalazioak handitzeko lanak fatxadatik



KANTXARA IGOTZEKO ARRANPA BAT ERAIKIKO DA. IRUDIAN, ESKUBITARA, HARRI ITXURAKOA.

hasiko dituzte. Egun, Oiardora sartzeko dagoen sarrerako horma behera botako dute. Kirol Patronatuaren nahia, Kiroldegia itxita egongo den hamabostaldian, hilaren 2tik 15era, fatxada eraisteko lanak burutzea da, bertatik diotenez, lanek eragozpen eta arrisku handiena orduan eragingo baitute.

Arranpa berri bat

Behin egungo instalazioetako sarrera aldeko horma eraitsita, hasiko dira Construcciones Artzamendi enpresak bideratuko dituen handitze lanak.

Fatxada handitzeaz gain, Kiroldegia eta Udarregi ikastola artean dagoen futbol zelai parean arranpa bat eraikiko dute. Helburua, Oiardora eskubaloio edota bestelako neurketak ikustera doazen herritarrei aretora igo eta jaistea erraztea da.

Bide batez, jaialdi edo bestelako ekitaldiren bat ospatzekoa denean, ekitaldietako antolatzaileek tresnak garraiatzea erraztu nahi da. Arranpa egiteko proiektua Otegi-Gaztañaga enpresari esleitu dio Kirol Patronatuak. Lanak irailean hastekoak dira.

Gune berri gehiago sortuko dira

Bederatzi edo hamar bat hilabete-ren buruan Oiardo Kiroldegia berritu eta handitua erabilgarri izango da, atzerapenik ez bada 2011ko udaberrirako, lanak hamar bat hilabetez luzatuko baitira. Bitarte horretan, sortuko diren eragozpenengatik Kirol Patronatutik barkamenak eskatu nahi dizkiote erabiltzaileei. Beharrezko egiten ez bada behintzat, abuztuko itxialdia kenduta obrek iraun artean Kirol Patronatuak instalazioak zabalik mantentzeko asmoa du. Beti ere, beharrezko segurtasun neurriak bermatuta, ahalik eta azkarren zerbitzua normaltzea nahi du Kirol Patronatuak.

Lanak amaitu ondoren, Oiardo Kiroldegi handiago bat izango du

Usurbilek. Egun duen sarrera aldetik hainbat metro karratu irabazi ostean, fatxada hainbat metro aurrera ekarri ostean alegia, gune berriak sortuko dira instalazioetan. Batetik, zuloan geratzen zen gimnasioa lehen solairura lekuz aldatuko dute. Kirol Patronatutik gogorazten dutenez, aldaketarekin argitasuna izango du gimnasia doan. Bigarren solairuan, balio anitzeko areto berri bat zabalduko dute. Hura erabiltzeko Usurbil Judo Taldekoek izango dute lehentasuna, nahiz haien entrenamendu orduetatik kanpo, beste zenbait ekintza burutzeko ere baliatuko duten gune berria. Handitze lanei esker, aldagela gehiago izango ditu Kiroldegiak etorkizunean.



KIROLDEGIKO ATARIAK ITXURA HAU IZANGO DU.

Gune hutsentzat, funtzio berriak

Aldaketa hauek orain arte zeuden kirol instalazioetako zenbait gune hutsik geratzea ekarriko du. Kirol Patronatu leku hauekin zer egin aztertzen ari da.

Agenda !

Uztailak 29 osteguna
18:30ean Haranen, Usurbil FT-ko
jubenil taldean entrenatzeko deialdia.

Uztailak 31 larunbata
Ibai Ondo elkartearen 50. urteurre-
neko ospakizuna (ikus 18. orrialdea).

Goardiako farmaziak

Uztailak 22, osteguna
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 23, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 24, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 25, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 26, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 27, asteartea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 28, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 29, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 30, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 31, larunbata
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Abuztuak 1, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Chucla farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)
*Usurbilen, soilik eguerdina arte

Abuztuan ez da bus-taxi zerbitzurik izango

Behemendik eta Udalak duela
bi urte, landa eremua
Kaxkoarekin lotzeko elkarla-
nean jarritako bus-taxi zerbitzuak
oporrak hartuko ditu abuztuan.
Uztailean, goizez bakarrik dabil bus-
taxia.

Datorren hilabete osoan zehar ez da
beraz, bus-taxi zerbitzurik izango. Bai
ordea, uztaila amaitu artean, baina
murrizketekin. Urtean zehar, astelehe-
netik ostiralera eguneko eskaintzen
ziren bost zerbitzutik hirura murriztu
baita hil honetan bus-taxi zerbitzua.



UZTAILEAN GOIZEZ IBILIKO DA.
ABUZTUAN EZ DA BUS-TAXIRIK IZANGO.

Arratsaldeko azken bi zerbitzuak ez
dira eskainiko hil honetan.

Eta aipatu moduan, abuztuan zerbi-
tzu osoa etengo da.

Usurbil FT hasi da 2010-11 denboraldia prestatzen

2009-10 kirol urtea amaitu berri-
tan, datorren denboraldia presta-
tzeko lanei ekin dio Usurbil FT-ko
zuzendaritzak. Jada, irailetik aurrera
lanean jardun nahi duten jokalariei
zuzendutako lehen deialdiak egin
dituzte. Lehena, asteazken honetara-
ko, uztailak 21. 19:30etan Haranen
nesken taldea osatzeko partaide izan
nahi duten jokalariekin biltzekoak
ziren. Izen ematera joan ezin izan ez
baina parte hartzeko interesa duenak
helbide honetara jo dezake: futusur-
bil@yahoo.es.

Uztailak 29, jubenilen txanda
Uztailaren 29an jubenilen txanda
izango da. Arratsaldeko 18:30ean



TALDEAK OSATZEKO LANEAN HASIA
DA USURBIL FT TALDEA.


Haranera joatera deitzen zaie jokalari-
riei, entrenatzeko arroparekin.

Azkenik, Usurbil FT-tik LH 3, 4 eta
5. mailetako ikasleei zuzendutako
oharra. Iraileko lehen hamabostaldian
burutuko dute Futbol Eskolako izen
ematea.

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 • 659602789

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

PSU
serigrafia



sergiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



erredakzioa@noaia.com

Oporretara goaz, datorren aldizkaria
irailaren 10ean

www.iruindagardotegia.com
www.astiazaransagardoak.com



Ondo pasa Santioak!

Iruin Sagardotegia eta Astiazaran Sagardoak

Petritza bidea z/g, Zubieta
943 361 229

Karobi

nekazaturismoa

Ondo pasa
jaietan!



Petritza bidea, ZUBIETA

- Logelak bainugelarekin
- Sukalderako Eskubidea



943 360 635 / 605 704 813



Ondo pasa Santiotan!!

